

# Diskoak

IKER BARANDIARAN



**Haize berri bat**  
Etxe.  
Baga-biga.  
Iraupena: 35'35".  
11 euro.

## Bestelako doinuen etorrera

BERRIZTARRAK ez du etenik hartu musika lehiaketa bat irabazi eta musikaren gorpilean hanka jarri zuenetik. Honako hau laugarren diskoa da eta azken sasoiarako talde-izaerako proiektuetatik bikotera pasa da oraingoan. Bere musikak beti izan du euskal rockeko hainbat kantariren oihartzun nabaria eta hemen ere bada, baina *Heldu eskutik* izeneko aurreko diskoa egiterakoan lurrean utzi zituen arrasto txikiak handi egin dira eta oraingoan country, rock amerikar eta

folkaren biderei ziurtasun handiagoz ekin dio. Kantu hurbilak dira, hunkigarriak, Etxeren marka dutenak eta bikotean plazaratutakoak, baina Iban Gurrutxagak egindako gitarra-lanari esker, bestelako sonoritate batzuk hartzeko gai izan dira. Esango nuke Johnny Cash eta haren senide Petti grabazio estudioa bisitatzeko puntuan izan zirela.

<http://www.myspace.com/etxemusika>

## Etxe

### «Nire musika ahalik eta zabalena egiten ahalegindu naiz beti»

Aurreko laneko talde izaera galdu eta ia biluzik atera zara Iban Gurrutxagarekin...

Haize berri batek egin dit putz eta proiektua aldatzera bultzatu nau. Kantu akustikoak eta lasaiki egin nahi nituen, jendearengandik hurbilago sentitu. Horretarako talde izaera alde batera utzi dut eta bidelagun berria aurkitu; Iban Gurrutxagaren lana izugarria izan da, asko eman dit.



*Albiste berria, Hori da dena, Zatoz nerekin, Taupadak, Lurralde bakarra...* Kantu gehienek izena eta abizena dute. Lagungarriagoa da aurpegia jarrita konposatzea?

Guztiak ez dute izena, baina kantua askok bai. Errazagoa izateaz gain, sentimendu gehiagorekin abesten dut norbaiti zuzentzen ari banatzaio. Baina garrantzitsuenak entzule bakoitzak kantua bere egitea da.

*Lurralde bakarra* moduko kantuekin eta oro har disko honekin entzule nagusiagoak hurbilduko zaizkizula uste duzu? Zer esaten dizute entzule nagusiagoek?

Inoiz ez dut nahi izan jende mota jakin bati abestu. Nire musika ahalik eta zabalena egiten ahalegindu naiz beti. Disko akustikoa izateak jende nagusi gehiago erakarri du. Eskertzekoa da helduek ere gazteon musikari arretea jartzea.

Countrya, folka eta popa. Horiek dira disko honetako osagai nagusienak?

Nik esango nuke countrya dela gehien nabarmentzen dena, aurreko diskoekin konparatuz. Hori Johnny Cashen 'errua' izan da. Estilo bakar baten finkatzea baino, nahiago dut beste estilo batzuk nahastu. Aurreko diskoak pop-rock doinuekin sortu nituen. Oraingoan rocka alde batera uztea erabaki dut, eta country edo folk

doinuetan sartzea.

"Atzean ez da ezer ikusten, ezta ere aurrean; ur korronteak idatziko du nire etorkizuna", poesia hutsa. Hitz guztiak zureak dira...

Batzutan nahi gabe ateratzen dira hitz ederrak. Kantu hori Gerra Zibilean Euskal Herritik alde egin behar izan zutenei eskainia da. ■

